

# Jantokia

Gure ikastetxean jantokia kudeaketa zuzenekoa da, hau da, Eusko Jaurlaritzak kudeatzen du.

Atal honetan jantokian ezarri diren arauen laburpena egin nahi dizuegu.



*Ereziboak hilaren 2an pasatuko dira hilero.*

✘ Jantokiaren ordutegia, **13:00etatik 15:00etara** izango da, eta umeek 2 txandatan jango dute:

**1. Txanda**, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailakoek. 2 urtekoak 12:30ean hasiko dira.

**2. Txanda**, 4., 5. eta 6.ekoek.

✘ Kuotak hauexek izango dira: Ohiko bazkalkidea: **4,60 € eguneko**. Noizbehinkako bazkalkidea: **5,20 € eguneko**.

✘ Ohiko bazkalkidea izateko, astean gutxienez 4 egunetan erabili behar da jantokia.

✘ Oso beterik dagoenez, ez da ziurtatzen noizbehinkako bazkalkideentzako lekua. Behar izatekotan, beti aurrez eskatu. Batzuetan, lekua izanda ere, ezin izango dute gelakoekin bazkaldu.

✘ Jantokiko erreziboa, esan diguzuen Banku edo Kutxatik pasatuko da. Hark errezibo bat bueltatzekotan, eskolako zuzendaritzan ordaindu beharko duzue erreziboa gehi bueltatzeagatik banaketxeak kobratzen duen zatia hilabetea bukatu baino lehen. Erreziboak bitan baino gehiagotan bueltatzekotan, Jantokiko Batzordeak OOGri jakinaraziko dio,

hark behar diren neurriak hartzeko.

✘ Hurrengo taulan hilabete bakoitzean ordainduko dena agertzen da.

HILABETEA	5 egun	4 egun
IRAILA	69 € 3ur/46€	
URRIA	115€	92 €
AZAROA	87,40€	69 €
ABENDUA	69 €	55,20 €
URTARRILA	82,80 €	64,40 €
OTSAILA	78,20 €	64,40 €
MARTXOA	82,80 €	64,40 €
APIRILA	64,40 €	50,60 €
MAIATZA	92 €	73,60 €
EKAINA	69 €	

✘ Huts egiteak zuzendaritzan jakinaraziko dira, bai pertsonalki, bai telefonoz. Hutsegitea **astebetekoa edo gehiagokoa bada, beti ere 48 ordu lehenago abisatuta, egun horietako %50 itzuliko da. Bekadunei ez zaie dirurik itzultzen.**

✘ Monitore eta sukaldeko langileak, enpresa gastronomikoak (EUREST) kontratatuturik daude, eta honek, ikasleei medikazioa ematea debekatzen die.

✘ Ume batek menu berezia behar badu, gaurkotutako mediku-ziurtagiria aurkeztuta baino ez litzaioke emango. Beste ikasle guztiek eguneroko menua jango dute.

✘ Ume batek epe batean ez badu ezertxo ere jaten, gurasoekin hitz egingo dugu, arazoa bideratzeko. Hala ere, jan barik jarraitzen badu, ezin izango du jantokia erabili.

✘ Zuen seme-alabak eskolatik ateratzen badituzue: **1. txandan jaten badute ezin izango dira itzuli. 2. txandakoak baldin badira itzuli ahal izango dira 14:00etan baino lehenago egiten badute.**



---

Jantokia eskolak eskaintzen duen zerbitzua da, eta borondatezkoa da. Jantokia erabiltzek bere funtzionamendu arauak onartzea dakar ezinbestean.

Jantokiko arduraduna **Mentxu** da. Berarekin hitz egiteko edozein egunetan egin dezakezue, bisita zehaztu ondoren. Telefonoa: **94.437.84.09**

Zenbaki bera erabil dezakezue edozein mezu emateko.